


Munduko Zazpi Arrigarriak



Beiñola Primariako arduradun Irakasleak eskatu eutsen bere ikasle taldeari izendatu egizala Munduan ziran Zazpi Arrigarriak.

Danak, alde gitxiaz, erantzun eben oneik zirala Zazpi Arrigarriak:

- 1-Ejiptoko Piramideak.
- 2-Taj Mahala
- 3-Koloradoko Kañoi erraldoia.
- 4-Panamako Kanala.
- 5-Enpire State eraikiña
- 6-San Pedroren Basilikea.
- 7-Txinako Arresi ikaragarria.

Aukeratutakoak batzeko orduan Andereñoak ikusi eban neskatoxu batek ez ebalá amaitu jarritako lantxua. Irakasleak ba diñotso: irakur ezaiguzu egin dozuna, lagundu al daizugun. Au dala ta neskatoxuari galdetu eutsen arazorik ete eukan zerrenda osotzerakoan. Zeozertxu bai, erantzun eutsen neskatoak, ain ugari diranez, ezin dot erabateko erantzunik emon.

Neskatotxuak tartetxuan ixilik egon ostean, olantxik erantzatun eutson:

Nire ustez onexek dira MUNDUKO ARRIGARRIAK:

- 1º- Lenengoa IKUSI al izatea...
- 2º- Bigarrena ENTZUN al izatea...
- 3º.- Irugarrena IKUTU al izatea....
- 4º- DASTATZE al izatea...
- 5º- SENTITU al izatea...
- 6º- IRRIBARRE EGIN al izatea...
- 7º- MAITATU al izatea...

Aretoan egozan guztiak ixildu ziran, txitik be ez entzuteraño.

Iñoz kutxatil bastergarriztat artzen doguzanak, arrigarriak izan daitezke.

Gogoan oroigarriztat onartzekoa:

BIZITZAKO BITXIRIK EDERRENAK

EZIN DIRA ESKUZ EGIN

EZ ETA TXANPONAKAZ EROSI.

Munetxek egokitua

Agurain, 2015.04.10

